

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Behin betiko onestea zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren eranskinaren aldaketa

Udal honek, 2023ko martxoaren 9an egindako ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren eranskina aldatzea.

Iragarkia 2023ko martxoaren 24ko ALHAOn (35. zenbakia) argitaratutako iragarkiaren bidez jendaurrean egon den aldiaren inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsirik geratzen da, jarraian bezala idatzita:

ZERBITZUAK EMATEAGATIK ETA JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Udal honek, bat etorrit Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauan ezarritakoarekin, eranskinean ageri diren zerbitzu eta jardueren prezio publikoak ezarri eta eskatzen ditu, ordenantza honetan ezarritako eran, zeinaren zati baitira.

2. artikulua. Ordenantza hau Artziniegako udalerrri osoan aplikatuko da.

3. artikulua. Ordenantza honetan araututako prezio publikoak, horiek ordaindu beharra sortzen duten zerbitzuen edo jardueren onuradunek ordaindu beharko dituzte.

4. artikulua. Ordenantza honetan araututako prezio publikoen tarifak eranskinean daude jasota.

5. artikulua. Kopuru horiek, eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordaindu beharko dira, eta ezingo dira murriztu epigrafeetan azaltzen diren zenbatekoak.

6. artikulua. Ordenantza honetako zerbitzu edo udal jarduerak jaso ahal izateko, aurrez horien eskaera egin beharko zaio Artziniegako Udalari. Zerbitzu edo jarduera horiek emanda daudela ulertuko da ordenantza honetako prezio publikoak ordaintzeko baldintzapean eta luzatu ondoren; prezio publikoa ez ordaintzeak automatikoki ekarriko du zerbitzua ez ematea edo jarduera ez egitea.

7. artikulua. Ordenantza honetako prezio publikoak ordaindu beharra zerbitzua ematen den edo jarduera hasten den unean sortzen da.

Hala ere, dagoeneko eman eta luzatutako zerbitzuak edo jarduerak badira, ordaindu beharra sortzen da dagozkien tarifetan adierazten diren aldietako bakoitzaren lehenengo egunean.

8. artikulua. Udalaren kutxetan zuzenean diru sarrera eginez ordainduko da prezio publikoa, zerbitzua eman edo jarduera egin baino lehen, eta adierazitako gutxieneko zenbatekoaz.

9. artikulua. Dagokion zenbatekoa itzuliko da jarduera egiten ez bada eta ez egitearen arrazoiak ezin bazezkiegotzi prezio publikoa ordaintzeko obligazioa duenari.

10. artikulua. Prezio publiko horiek ez ordaintzearen zorrak premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

Azken xedapena

Ordenantza hau, bere eranskinarekin batera, behin betiko onetsi zen eranskinean agertzen den egunean. Indarrean jarriko da ALHAOn argitaratzean eta indarrean jarraituko du harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

ERANSKINA
Tarifak

1. epigrafea: fotokopiagailua erabiltzea.

A-4 paperezko dokumentuen fotokopiagatik: 0,10 €/folio.

A-3 dokumentuen fotokopiagatik: 0,15 €/folio.

2. epigrafea: Faxe erabiltzea.

Faxak bidaltzea: 1,50 €/folio.

3. epigrafea: museo etnografikorako sarrerak.

- Sarrera orokorra: 4 euro.

- 15 pertsona edo gehiagoko taldeak, erretiratuak, langabeak, dibertsitate funtzionaldunak, gazte-txartela, familia ugarien txartela eta irakasleak: 3 euro.

- 6 eta 12 urte bitartekoak: 2 euro.

- 6 urtetik beherakoak: doan.

- Mendekotasunen eta ikasleen laguntzaileak: doan.

Sarrera doan den eguna:

- Museoen nazioarteko eguna.

Museoaren lagunak:

- Kuota: 15 euro/urtean.

Artziniega, 2023ko maiatzaren 17a

Alkatea

JOSEBA VIVANCO RETES